

BALIO-PROPOSAMENA

Gure produktuak aurre egiten dio gailu eramangarrien energia-autonomia ezari. Gaur egungo kargagailu eramangarriak txikiak dira eta bateria gutxi ematen diote. Gainera, orokorrean dezeorosoak dira erabileran. Horregatik, kargagailu eramangarri bat proposatzen dugu, gailuaren oinarrira egokitzen dena, erabiltzeko orduan erosotasuna eta independentzia emateko, edozein lekutan zaudela ere.

Adibidez demagun, energia iturri bati konektatutako idazmahai batean lan egiten duzula, baina dena delakoagatik zure lan lekua ordu batzuez entxuferik gabeko leku batera aldatzea erabakitzen duzula. Bateria agortuko litzaizuke, ezta? Hala ere, gure produktu eramangarriarekin autonomia energetikoa lor dezakegu. Gure kasuan, ikasleok, arazo haupairatzen dugu. Portatilaren bateria ez da iristen eskola-ordu guztietarako, eta, beraz, kargagailu hori erabiltzen badugu, arazo hori konpon dezakegu. Gainera, mahaien azalera txikia izatea ez da arazo bat, gure kargagailuak ez baitu lekurik hartzen portatilaren azpian doalako.

Produktuaren diseinua ordenagailu eramangarriaren oinarrira egokitzeko gai den oinarri laua izango litzateke, ordenagailuaren oreka oztopatzen ez duena. Kargagailuak kable zabalgarri bat izango luke portatila energiaz hornitzeko.

